

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

286 - 2020ko abendua



## IREKI BEGIAK, ZUGANDIK GERTU GAUDE

## Aniztasuna aberastasun

Nafarroako Gobernuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, ikasturte hasiera honetan saria banatu die "Aniztasuna aberastasun" izeneko III. Eskola Lehiaketa irabazi duten sei ikasle-talderi.

Aurreko ikasturtean, Araxes ikastetxeko DBH1-eko ikasleek teknologiao saioetan egindako proiektuak *Aniztasuna Aberastasun* lehiaketarako balio izan zuen. Ordura arte ezin izan zenez ezer ospatu, aurtan sari banaketa bat ospatu da, beti ere segurtasun neurri guztiak betez. Proiektuak bizitzako bideei erreferentzia egiten zien, 6 sari zeuden banatzeko eta sarituen artean geratu ziren Araxes ikastetxeko ikasleak, eskolarentzako plaka bat eta bakoitzarentzat txapa bat jasoz, Igantzi-ko *Irrisarriland* abentura parkerako egun baterako paseaz gain.

Ikasleak oso pozik daude jasotako sariarekin eta antolatzaile zein parte-hartzaile guztiei eskerrak helarazi nahi dizkiete. Hona hemen saria lortzeko aurkeztutako lana:



### BIZITZAKO BIDEAK:

*Bizitzako bideak ugariak dira  
ezkerrekoa eta eskuinekoa,  
hau eta hura...  
bata bestearekiko ezberdin eta bakarra.*

*Guztiak ezagutu ditzakegula dakigu,  
gure artean paktu bat baitauekagu:  
badakigu hartzen dugun bidea hartzen dugula  
ondokoa aukeratu duenak bestea erakutsiko digula.*

*Horregatik elkartasunean lan egiten dugu,  
honek gure nortasunaren aberastasuna ekartzen baitigu.  
Eta egiten duguna? Besteena errespetatu eta guztiak baloratu.*

*Gure bidea erakusten dizuegu hau da,  
itxuraz zuri-gorria,  
eta guztiok elkarrekin eraiki duguna  
eta Aniztasunaren bidea deitu dioguna.  
Eta zuk, zer bide aukeratuko duzu?*

**M. Angeles  
Urrizalki**

**iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario  
de Navarrako  
Korrespontsala**

**948513056  
699179437**

**Atabal**  
okindegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etxez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE  
HARATEGIA**

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

**BERTAKO  
HARAGIA**

*Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldatutako  
platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiltua ere  
eskeintzen dizugu.*

Antigua kalea 7  
31890 BETELU

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzia eta esanen erantzukizunik.

[issuu.com/maillopealdizkaria](http://issuu.com/maillopealdizkaria)

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Lekunberriko Udala, Ane Irazu, Irati Moreno, Nerea Hernandorena, Xabier Azpiroz, Joseba Artzeluts, Txiki Iriarte eta Larraungo Udala.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [maillope@labrit.net](mailto:maillope@labrit.net).

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA

04

**KUXKUXEAN** Abenduko zorion agurrak.

08

**ELKARRIZKETA**



Ez-ohiko ikasturtea.

12

**BATZARRE** Euskaraldia.

20

**ERREPORTAJEA**



Kontzejuen biziraupena.

24

**KULTURA** Mendialdeko azoka.

27

**KIROLA** Elkartasun saskia.

28

**PLAZATIK PLAZARA** Jubiloteka.

31

**AGENDA**





**Alain Castrillo Cruz**  
Abenduaren 1ean, 15 urte.  
*Zorionak Alain!!! Atallutik,  
musu haundi bat denon  
partetik!*

**June Tolosa Iraola**  
Abenduaren 14an, 11 urte.  
*Zorionak maitia. Egun ederra  
izan dezazula. Besarkada eta  
muxu erraldoi bat, aitatxo,  
amatxo eta Urkoren partez.*



**Josu Iribarren Saigos**  
Abenduaren 13an, 13 urte.  
*Zorionaaaak txapeldun!! Egun  
ederra pasa zure familiaren  
partez. Segi orain bezain jator!!!*



**Alai eta Nahia Olleta**  
Abenduaren 6an, 12 urte eta ilbeltzaren 24an, 8 urte.  
*Zorionak eta urte askoz bikote. Musu potolo bana  
etxekoen partez!!!*

**Enaitz Iriarte Olano**  
Abenduaren 19an, 6 urte.  
*ZORIONAK makinista!  
Disfrutatu zure egunean.  
Muxu potolo bat etxeko  
guztien partez.*



**Manex Mitxeltorena Eskamendi**  
Abenduaren 13an, 4 urte beteko ditu  
gure ttikiak.  
*Ongi pasa zure egunean. Muxu potolo  
bat, aita, ama eta Jokinen partez.*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



## GARDENTASUN FALTA

Lekunberriko EH Bilduk garden-tasun falta salatu du udal aurrekontuen kudeaketari dagokionez. Azaroaren 26an onartu ziren aurrekontuak, baina Udal Gobernuak oposizioko alderdiari aurrekontu proiektu osoa helarazi, aztertu eta proposamenak egiteko aukerari uko egin diola adierazi du EH Bilduk eta ondorioz, bi alderdien arteko elkarlanik gabe eta negoziatu gabe onartu direla.



## ONGI ETORRI 2021!

Ez da urte erraza izan 2020a eta urte berriari ere modu berezian emanen diogu ongi etorria. 2021. urtea ohi baino distantzia handiagoarekin eta elkar babestuz hasi beharko dugu eta horrela datozen hilabeteetan elkar besarkatzeko aukera dugun. Aurten Irati Moreno aldaztarraren artelan eder batzuekin osatu dugu egutegia. Urte berri on denoi!



## EKITALDIZ BETETA DATOR ABENDUA PRINTZAN

Geroz eta arrakastatsua goa dira Printza guneko ekitaldiak. Azaroan zehar hainbat jarduera antolatu zituzten. Besteak beste, Muxutruk truke azokan liburuak, jostailuak, arropa eta askoz gehiago trukatzeko aukera izan zuten herritarrek. Ogia ere egiten ikasi zuten eta txikienek kalean dituzten, eraikin eta elementuekin eskalatzen ikasi zuten. Ikusi abenduko egitaraua (31. orr.) eta parte hartu!

## ► Xabier Eizagirre "Ostokaitz" (Gaintza)



*Hara ta hona genbiltzan denok  
ze ondo zihoakigun  
eta benetan inporta duna  
ahaztu xamarra giñun.  
Ustekabean bizimodue  
zenbat aldatu zaigun  
bi mila eta hogeigarrena  
ezta ahaztuko seitun  
ea histori honekin  
zerbait ikasten deun.*

*Konfinamendu ta PECEERRE  
hidrogela ta maskara  
ta halaere egun gutxitan  
zabaldur da etxeetara.  
Elkarregandik urrundu eta*

*sortu digute ikara  
lege berriak sortzen dituzte  
komeni zaien erara  
osasuna ta askatasun  
asko galtzen ari gara.*

*Hildakoak eta gaixoak  
izanda nahiko trixkantza  
aberatsak aberatsago ta  
guretzat krixia latza.  
Ez eduki agindu diguten  
laguntz horien esperantza  
alkar lagunduz beharko degu  
erori zaiguna altxa  
ea datorren urten lasaio  
egin ahal dugun dantza!*

Datorren hilean bertotan jarriko dugu... Martina Askarai.

## KRISIARI AURRE EGIN ETA AKTIBATZEKO GARAIA DA!

Euskararentzat ez da inoiz bolada errazik izan. Gure historian, euskaldunoi maiz gertatu zaigu, ohiko oztopoei zailtasun erantsiak gehitzea. Debekuei eta jazarpenei egin diegu aurre, eta gerrak, diktadurak eta era guztietako krisiak nozitu ditugu. Baina beti atera gara aurrera, beti egon delako, euskaraz hitz egiten jarraitu nahi izan duen herri bat, eta hizkuntzaren aldeko jarrera aktiboa izan duten herritarrak, egoerarik zailenetan ere, euskarari etorkizun hobea eskaini nahi izan diotenak erabile-  
ra eta transmisioa bermatuz eta hauspotuz.

Pandemia honek gogor jo du mundua, gogor jo gaitu gu, eta latza izaten ari da euskararentzat. Kontseilua-  
ren "Geroa euskaratik" txostenaren aurkezpenean esan genuen bezala, egoera honetatik ateratzekotan ezinbestekoa izango da, erakundeek eta agintariek behar berrietara egokitutako euskararen aldeko politikak sustatzea eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartzea.

Eta horrekin batera, herritarren jarrera proaktiboa, euskaraz bizi ahal izateko urratsak egiten jarraituko dutenak.

Hizkuntzak komunikatzeko eta komunitateak trinkotzeko dira. Koronabirusak, aldiz, elkarrengandik urruntzera behartzen gaitu, multzo txikiagotan biltzera, eta era guztietako ekitaldiak bertan behera utzi, atzeratu edo egokitzea. Neurri zehatzak hartzen ez badira eta euskaldunok ez badiogu hizkuntzari eusten, joera horiek hizkuntza hegemonikoak indartuko dituzte are gehiago. Egoera honetan euskararen alde jokatzeko, bestalde, bada komunitatearen alde jokatzeko, hau da, hezkuntza inklusiboaren alde egitea, gertuko komertzioa eta sortzaileak babestea... Euskaraz egin eta euskararen alde egotea, denon geroa eraikitzea baita.

Datozen hilabeteotan, gauden egoeran gaudela, euskaltzaleok gure aldarrikapenekin, baina batez ere, gure praktikekin euskara bizitza sozialaren erdigunera eramatea lortu behar dugu, behar diren segurtasun neurri guztiak hartuz, noski.

Aurtengo Euskaraldia bereziki garrantzitsua ari da izaten helburu horri begira. Milaka eta milaka entitate eta herritar ari dira jada, zailtasunei aurre eginez, ilusioz eta harrotasunez beren euskararekiko atxikimendu praktikoa erakusten. Denon artean, Euskaraldi hau ere indartsua izatea ari gara lortzen.

Horregatik, Euskaraldian kontzientzia osoz eta inguruan eraginez ahobizi edo belarriprest gisa jokatzera animatzen zaituztegu, parte hartzen duzuen entitateetan euskararentzako espazioak sortu eta bultzatzera, zuen etxe eta entitateak Euskaraldiaren banderatzuekin apaintzera, eta abenduaren 4tik aurrera ere Euskaraldiari jarraipena ematera herriz-herri eta auzoz-auzo. Eta horrekin batera, euskal kulturari beste bultzada ematera; ekitaldietara joanez, liburuak edo diskak erosiz, hedabideak jarraituz, eta batez ere, gozatuz.

Oztopoak oztopo, euskaraz bizi nahi duen eta euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egin nahi duen herri hau bizirik eta aktibo dagoela erakuts dezagun.

Kike Amonarriz Gorria  
(Euskaltzaleen Topaguneko Lehendakaria)

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi  
mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79



**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu



A25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA  
EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK BADIRAU ORAINDIK,  
IKUSTEN EZ BADUZU ERE... EDO IKUSI NAHI EZ BADUZU ERE

# IREKI BEGIAK

BERDINTASUNEAN  
AURRERA EGITEAK  
INDARKERIA EZABATZEN DU

[generoindarkeriagehiagoez.nafarroa.eus](http://generoindarkeriagehiagoez.nafarroa.eus)



Instituto  
Navarro  
para la Igualdad



Nafarroako  
Berdintasunerako  
Institutua

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



25 de febrero de 2022

## “Ez-ohiko ikasturtea gure ikasle eta irakasleentzat”

*Etxean amaitu zuten joan ikasturtea ikastetxeetako ikasle eta irakasleek eta irailean ikasgeletara bueltatu ziren arren, ez-ohiko ikasturtea izaten ari da aurtengoa ere.*

Inge Zubillaga, Iraide Satrustegi, Maria Mikeo eta Janire Sotil Araxes Ikastetxeko DBHko lehen mailako ikasleak dira. Eurak ere ezustean harapatu zituen Koronabirusak. Iraide: *“Martxoan English Weekera joatekoak ginen Baztan aldera eta ezin izan ginen joan, gainera denoi etxea bidali gintuzten”*. Irakasleek aste osorako lanak bidaltzen zizkietela azaldu digute, tarteka Meet saioak egiten zituztela eta eurak nahi bezala antolatzen zirela horiek egiteko. Janire: *“Azterketa gutxiago izan genituen eta askoz hobeto”*. Joan den ikasturtean nahiko entrenamendu izan zuten teknologia berriekin. Hasieran horietara ohitzea kosta zitzaien arren, dagoeneko adituak dira. Iraide: *“Lehen chromebookak partekatu egiten genituen eta orain berriz bakoitzak gurea daukagu eta askoz gehiago erabiltzen ditugu”*.

Amaia Urrestarazu beteluarra Entzumen eta Mintzaerako Espezialitateko Irakaslea da Araxes Ikastetxean.

Joan den ikasturtean amatasun bakan egon eta gero martxoaren 25ean bueltatu zen lanera. Lanera bai, baina lantokira ez.

Amaia laguntza moduan sartu ohi da ikasgeletan. Eta iaz berak ere saio telematikoen bitartez eskaini zien laguntza bere ikasleei. Amaia: *“Tutoreak eskaintzen zituen Meet saioetan parte hartzen nuen eta ondoren, laguntza behar zuten ikasleekin banaka bestelako meet saioak egiten nituen edo korreo elektronikoaren bitartez moldatzen nintzen”*.

Ikastetxean sartzeko goizero eskuak garbitu ohi dituzte gelarekin, atsedendiaz gozatzeko patioko espazioa zatitu egin dute maila ezberdinetako ikasleak euren artean nahasi ez daitezen. Soinketan ere material gutxiago partekatzen dute. Eta orain larrialdietako eskailerak ere erabiltzen dituzte, goiko mailetako ikasleak bertatik igotzen dira. Amaia: *“Ikasleak gelan ahozapiarekin egoten dira uneoro, atsedendian hamaiketako jateko baino ez dute kentzen. Nahiko ongi daramate. Guk ere ahozapiarekin egiten dugu lan eta egia da maiz traba izaten dela. Ikasleei zaila zaie gure espresioa atzematea eta baita guri haiena ere, horrek zaildu egiten du komunikazioa eta harremana”*. Irakasleen artean egoera berrira egokitzeko ardura eta kezka izan duten arren, kutsatzeko beldurrik ez du sumatu Amaiak. *“Zorionez hemen ez dugu kasu positiborik izan, bai gurasoek eta baita ikasleek ere hasieratik egoera ulertu eta ongi egokitu dira. Aurten nabari da ikasturte berezia izaten ari dela. Aurten beharrezkoa da iaz eman gabe edo sakondu gabe gelditu ziren edukiak lantzea eta hori nabaritzen ari da. Baina bestela nahiko ongi moldatzen ari garela esanen nuke. Eta lehenago edo beranduago bueltatuko gara normaltasunera”*.



Goian Amaia Urrestarazu irakaslea eta behean Janire Sotil, Inge Zubillaga, Maria Mikeo eta Iraide Satrustegi ikasleak.



●● NEREA HERNANDORENA (Lehen Hezkuntzako irakaslea Atarrabiako La Presentación FESD ikastetxean)

## “Argi dago ahozapia eramateak ulermena zailtzen duela”

### **Nola aldatu da zuen egunerokoa zure lanpostuan?**

Niri, pertsonalki, gehien kostatzen zaidana ikasleekin kontaktu fisikoa ez izatea da. Horrez gain, eskuak askotan garbitzeko ohitura hartu dugu dagoeneko, bai eta gelako espazio guztiak are eta garbiago mantentzeko ere.

### **Ikasleei irakasterako orduan metodologia aldaketarik egin behar izan duzue?**

Bai. Covid-19a baino lehen talde kooperatibo bidez lan egiten genuenok, adibidez, metodologia aldatu behar izan dugu ikasleen arteko distantzia mantendu ahal izateko. Bestalde, plataforma birtualekin lan egiten hasi gara egoera dela eta.

### **Zein da egunero bete beharreko protokoloa?**

Ikasleak patiotik sartzen dira eskola eremura eta, bertan, bere talde egonkorrari dagokion lekura joaten dira. Irakasleon laguntzarekin, talde bakoitza bere gelara igotzen da eta, sartu baino lehen, gel hidroalkoholikoa ematen zaie. Ahozapiak momentu oro jarrita eraman behar dituzte hamaiketakoaren momentuan izan ezik. Horrez gain, gelako leihoak eta atea irekita izaten ditugu eta eskuak behar adina garbitzen ditugu.

### **Ahozapiak erabiltzeak zein puntutaraino zailtzen du ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa?**

Ahozapia eramateak ulermena zailtzen duela argi eta garbi dago. Irakasleok altuago hitz egin behar dugu eta hori dela eta, eztarriko mina nabaritzen dugu sarritan. Bestalde, ikasleek banan-banan hitz egitea inoiz baino beharrezkoagoa dela iruditzen zaigu, komunikazioa eraginkorragoa izan dadin.



Nereak oraindik gogoan ditu etxealdian ikasleekin eta euren gurasoekin telematikoki izandako saio hunkigarriak.

### **Berrogeialdian egon behar izan duzue zuen ikastetxean?**

Bai, gure ikastetxean pare bat gela egon dira berrogeialdian.

### **Ikasleengan egoera honek etorkizunera begira nola eraginen duela uste duzu?**

Alde batetik, etorkizunean kontaktu fisikoa zeinen garrantzitsua den baloratuko dugu, bai ikasleek eta baita irakasleok ere. Denbora guzti honetan bizi ezin izan ditugun kontaktu momentuak gogo handiz hartuko ditugu berriz ere. Bestetik, higieni neurrien garrantziaz kontzienteago izango garela uste dut.

### **lazko ikasturtean online egin behar izan zenuten lan? Zer moduz joan zen?**

Bai, pasa den urtean telematikoki lan egin behar izan genuen. Ahalik eta erantzunik egokiena ematen saiatu ginen eta familiek, orokorrean, beraien esker ona adierazi ziguten, egoeraren zailtasuna kontuan izanda.

Zailtasun nabarmenenak lan ordu kopurua, lan karga handia eta egoerari ahalik eta hobekien aurre egiteko

*“Etorkizunean kontaktu fisikoa zeinen garrantzitsua den baloratuko dugu”*

*“Egoera pertsonala eta ongizatea izan beharko lirateke abiapuntua, eta hortik aurrera, gainontzeko alderdiak landu”*

erronka izan ziren. Aspektu positiboeri erreferentzia eginez, denbora tarte horretan garatutako gaitasun digitala eta erabilitako edo sortutako materiala nabarmenduko nituzke.

#### **Anekdotarik?**

Ikasleekin harremana mantentzeko bideo-deiak egiten genituen eta hauek oso bereziak izan zirela aitortu behar dut. Gogo handiz elkartzen ginen, elkar ikusteko behar handia genuelako. Nahiz eta gailu elektro-

nikoen bidez elkar ikusi, momentu hauek oso hunkigarriak eta dibertigarriak izan zirela azpimarratu nahiko nuke.

#### **Zer aldatu edo hobetuko zenukete?**

Nire ustez, egoera zein izan den kontuan izanik, eta bere bilakaera ikusita, bai ikasleen, euren familien eta irakasleon egoera pertsonala eta ongizatea izan beharko lirateke abiapuntua, eta hortik aurrera, gainontzeko alderdiak landu.

● ● XABIER AZPIROZ (Iruñeko espetxean dabil irakasle urriaz geroztik)

## *“Espetxean beste errealitate batean bizi dira”*

Xabik Koronabirusaren garai hauetan, besteak beste euskara irakasten die Iruñeko espetxean preso dauden zenbaiti.



modulu, emakumezkoen modulu bat eta erizaintzako modulua daude. Goizetan euskara ematen diet eta arratsaldetan erdarazko alfabetizazioa. Ikasgai horiez gain, nire lankideek ingelesa, gorputz hezkuntza eta atzerriarrentzako erdara ematen dituzte eta gidatzeko edozein baimen ateratzeko klaseak ere eskaintzen zaizkie. Gorputz hezkuntzako klaseetan jende askok ematen du izena. Han barruan kirola egiteko beharra dute, mugitu, gimnasioan edo futbolean ibili eta oro har modulutik ateratzeko beharra. Baina esan beharra dago gero eta gehiago direla euskara ikasteko gogotsu daudenak.

#### **Covid-19aren aurkako zein protokolo jarraitzen dituzue bertan?**

Espetxeko neurriak oso zorrotzak dira, hemen birusa sartuz gero moduluan dauden guztiak kutsatuko lirateke. Presoak euren moduluaren barruak ahozapirik gabe ibiltzen dira, baina espetxeko funtzionarioak eta bertan lan egiten dugun guztiak beharrezkoa dugu ahozapiarekin ibiltzea. Modulu ezberdineko ikasleak klase berean elkartzen direnean orduan ahozapia jartzen dute eurek ere edo bestela gelan bertan fisikoki distantzia handiagoa mantentzen da.

#### **Lehen Hezkuntzako irakaslea zara, baina orain Iruñeko espetxean zabilta irakasle. Nolatan?**

Ordezkapenak egiteko aukeren artean espetxeko lanpostua zegoela ikusi nuen eta izena eman nuen. Hasiieran halako erreparo pixka bat sentitu nuen baina egia esan oso gustura nabil.

#### **Eta nolakoa da espetxe batean irakastea?**

Iruñeko kartzelan gizonezkoen bi

## “Mugak jartzea da gogorra”

### **Eta ez dira kasuak azaltzen ari?**

Ez. Orain adibidez kanpora irteteko baimenak ematea galarazi dute eta hori gogorra da beraiantzat. Eta azken hilabeteetan kanpora irteteko baimenak lortzen zituztenen kasuan, hiru edo lau egun kanpoan egon eta gero bueltatzerakoan hamabi egunez harrerako moduluan (bakarkako edo binakako gelatan) egotera beharturik zeuden Covid-19agatik kutsatzea saihesteko.

### **Beraz, hiru edo lau eguneko askatasunaren truke baldintzak gogorragoetan egon behar dute...**

Bai, baina hala ere handik ateratzeko desiratzen daude eta ez dut ondorengo hamabi egun horietan pentsatzen.

### **Kanpoan bizi dugun egoeraren inguruan galdetzen al dizute?**

Egia esan, telebista ikusten dute, kanpoko jendearekin telefonoz hitz egiten dute eta informatuta daude, baina egia da barruan beste errealitate bat bizi dutela.

### **Aberasgarria zaizu bertan lan egitea?**

Bai, oso esker onekoak dira eta aberasgarria da. Okerrena da haiekin enpatia sentitzen duzula eta mugak jarri behar dituzula. Batzuetan mesedeak eskatzen dizkirate, kanpotik

hau edo bestea ekartzeko... Eta hala-ko egoeretan mugak jarri behar zaizkie. Niri hurbilekoa izatea gustatzen zait eta gainera oso pertsona onak dira orokorrean, eta horregatik marra horiek ezartzea ez da atsegina. Niri ez zait gustatzen jakitea zergatik dauden barruan, ez dut zentzu horretan eurekiko dudan jarrera baldintzatu nahi.

### **Irakasteko orduan zein oztopo dituzu?**

Bertan ordenagailuak dituzte baina ez dago internet erabiltzeko aukerarik. Eduki guztiak paperean eman beharra dizkiezu ikasleei. Gure lana handik irteten direnerako formazioa eskaini eta integratzen laguntzea da eta zentzu horretan mugatuta gaude.

### **Espetxearekiko zenuen ikuspegia aldatu al da bertan lan egiten duzuetik?**

Bai, nolabait aldatu da. Orain inpaktu handiagoa du nigan. Batzuetan modulura sartu izan naizenean pentsatu izan dut: “Begira zeinen gustura gauden”. Baina ni bi orduz egoteko sartu naiz, ez naiz bertan bizi. Presoek ordutegi osoa eta errutina guztiz finkatuta dute, dena mugatuta. Nire ikasleetako batek esan ohi dit hormigoia sindromea duela, hormigoia baino ez duelako ikusten leku guztietan. Eta egia esan, han gutxi dago ikusteko!



**IORTIA** CLINICA DENTRAL - HORTZ BILVKA

Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



**tanatorios IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



### ▶ ANE BARBERIAK IRABAZI DU LEKUN-BERRIKO II. ARGAZKI LEIHAKETA

Joan den azaroaren 22an Lekunberriko II. Argazki Lehiaketako sari banaketa egin zen udaletxean. Egoera dela eta publikorik gabe ospatu zen ekitaldia. Lehen sariduna Ane Barberia izan zen, eta Leire Aranburuk eta Joseba Merinok bigarren eta hirugarren saria jaso zuten. Aurtengoan, guztira, 13 herritarrek parte hartu dute eta 66 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara. Hiru saridunen argazkiekin eta hautatutako beste bederatzir argazkirekin osatuko da Lekunberriko Udalak kaleratuko duen 2021eko egutegia.



### ▶ BERTSOLARIAK BUELTAN DIRA GUREAN

Uda honetan ez dugu aukerarik izan bertsoaz gozatzeko, baina horretarako aukera izanen dugu hilabete honetan Lekunberri. Datorren abenduaren 13an bertso jaialdia izanen dugu kiroldegian, arratsaldeko 18:00etan. Maialen Lujanbio, Julio Soto, Oihana Iguaran eta Xabat Illarregi arituko dira bertsoetan. Sarrerak dagoeneko salgai daude 5 eurotan, Mitxausenean, Larraungo eta Lekunberriko udaletxeetan edota larbeleareuskaraz@iparmank.eus e-postaren bitartez eskatuta. Beharrezkoa izanen da sarrerak aurrez erostea!

### MIKROMATXISMOEI BURUZKO HITZALDIA ESKAINIKO DA

Azaroaren 25ean oihal moreak ikusi genituen zintzilik geure herrietan. Eta datorren abenduaren 10ean Larraun Ibarreko Berdintasun Mahaiko kideek beste hainbat eragilerekin batera antolatutako "Mikromatxismoak. Indarkeria matxistaren oinarria" hitzaldia eskainiko da arratsaldeko 17:00etan Zoom bidez. Ezinbestekoa izanen da abenduaren 7a baino lehen izena ematea 605 46 68 05 mugikor zenbakiaren bitartez.





### ARAXES IKASTETXEA HONDAKINEN KUDEAKETAN ERREFERENTE

Hondakinen Prebentzioaren Europar Astearen baitan Toki Administrazio eta Despopulazte Departamenduko Zuzendaria nagusia den Jesús M<sup>a</sup> Rodríguezek, Araxes ikastetxea bisitatu zuen hondakinak murrizteko azken urtetan burutzen ari diren jarduerak ezagutzeko. DBHko ikasleak Ikastetxe Sostengarria izeneko hautazko ikasgaien egindako lanketari esker, eskolan sortutako hondakin organikoa bertako konpostagailuan biltzen dute eta jada hasiak dira ateratako ongarria sortu duten baratzean erabiltzen. Horrela ziklo osoa itxiz.



### ESKUALDEKO 486 LAGUNEK PARTE HARTU DUTE EUSKARALDIAN

Azaroaren 20ean hasi eta abenduaren 4ean amaitu zen aurtengo Euskaraldia. Gure eskualdean duela bi urteko parte hartzea gaindu egin da. Herritar gehiago animatu dira ekimenarekin bat egitera eta poztoko berria da. Aurtengo edizioan, eskualdeko 486 lagunek eman dute izena (2018. urtean 397 izan ziren). Horietatik 68 belarriprest moduan aritu dira egun hauetan (2018. Urtean 74). Udalerrira begiratu gero, Araitzen 69 ahobizi eta 9 belarriprest izan dira, Bete-lun 38 ahobizi eta 7 belarriprest, Larraun 137 ahobizi eta 13 belarriprest eta Lekunberrin 174 ahobizi eta 39 belarriprest. Ariguneak berriz 48 izan dira eskualdean sortutakoak. Jarduera ugari antolatu dira ekimenaren bueltan eta horiek guztiak aurrera eramaten lagun duzuenoi esker berezik eman nahi dizkizute Euskalaldiko antolatzaileek. Mila-mila esker!

### KATIXA GOLDARAZENA ARTE GAZTEA TOPAKETAKO SARIDUNEN ARTEAN

Arte Gaztea Topaketan laugarren urtez parte hartu du Katixa Goldarazena eta aurtengo erakusketarako ere sailkatua izan eta gero lehen hiru saridunetako bat izan da. Gorputz batean interesa jarriko marraztutako irudi lineal eta garbieran dago inspiratuta 'Llora, no llores, llora' bilduma.



# Urte bat pasa da

Urte bat pasa da  
entzun genuenean urruti zegoen  
urrutian usaintzen zen  
urrutian sentitzen zen.

Argiaren bidaia  
kometa bezain azkar  
kearen altueran  
haizearekin bat  
bidaia egin zuen.  
Galdurik zegoen ordea  
norabide gabe  
noranzko guztietan  
ihes egin zuen  
bere lekua  
txokoa  
sortu nahirik.

Ez zizkieten atea ireki  
muzin egin zioten  
magalaren beroa ebatsi  
bihotzak itxi.

Arrotzaren papera  
bizitzaren filman.

Minak  
samina  
saminak  
amorrua  
amorruek  
urradura  
zauria.

Heriotza.

Ukendu gabeko gaitza  
orbain sakonenak  
sendatzen ez diren horietakoak.

Iluntasuna  
azazkalen zorrotza  
harramazka



izotz orratza  
hotza  
erraietako garraxia  
ixila.

Ametsen erauzle  
etorkizunera doan bidaian  
txartela galdua  
aukerekin kaosa.  
Laguna  
besterik ez zuen nahi  
besarkada  
hitzen azalpena  
iseka eta oihuen amaiera.  
Beltzaren gosea  
ezin zigorrik handienak ere ase.  
Izurritea.  
Krudelki epaitua  
mugarik ezagutzen ez zuena  
hesietako balak baina hilkorragoa  
askatasunaren lapurra  
bortxaren bidea.

Etorriko zenak  
izango zenak  
sortzen zuen

izpia  
irria  
irrika  
grina  
eztia  
berria.

Bizitza.

Iraganera egingo zuen salto  
behin handitu zelako  
jolasa debekatu dioten umearen nahia  
desira bihurria  
tximeletaren metamorfosia  
lo goxo bat  
harena berarena dena  
ondorengo esnatzea.

Hurrengo eguna  
egutegian atzean geraturiko orria.

Orri simple bat  
oroitzapena bakarra.



luze

Leire Aranburu











# Enpatia, sendagai

Azken hilabeteotan geure gizartean bizi izandakoak, modu desberdinetan jasotako informazioak eta norberak egindako azterketek eraman gaituzte errealitatea modu batera edo bestera ulertu eta sinestera. Errealitatea, berez, bakarra da baina, hala ere, bakoitzak geure begiekin ikusten dugu eta zuri ala beltz bezala margotzen ditugu. Hortik sortzen dira taldeak, lagunak eta etsaiak. Eta orain, neurri batean, hori ere ari gara egiten. Badaude erakundeek, politikariek eta hedabideek bultzatutako errealitatea erabat onartzen dutenak, jende gehienak esango nuke, eta, beste alde batetik, kontrakoak, ezer gutxi sinesten dutenak. Azken hauek, gutxiengo nabarmena direla esango nuke. Pentsa genezake, gainera, azken hauek errealitatea ukatu nahian dabiltzala, begiak ixten ditzutela, beste alde batera begiratzen dutela. Hala da? Horrela izan ala ez, bi talde kontrajarri sortu ditugu.

Egoera zaila bizitzen ari gara eta egoera zailak oso aukera onak dira ikasteko. Arau eta neurriak birusa ez zabaldu eta kalte gehiago ez sortzeko izaten ari dira, antza.

Nik eskolan ikasi nuen gaztetan, birus, bakterio eta beste mikrobio askorekin izaten dugula kontaktua etengabe geure bizitzan. Gehienak ez dira kaltegarriak, hainbat onuragarriak dira eta gutxi batzuek gaitxotasunak eragin ditzakete. Azken hauetatik babesteko animalioak badugu immune sistema izenekoa, alegia, geure gorputzak badu kanpotik datorrenari aurre egiteko defentsa sistema indartsua, berez. Jakina,



geure burua zaintzea nahitaezkoa da defentsa sistema hau ongi izateko. Egin behar dugun lehenengoa da arnasa ongi hartu, aire garbia, birrikak ongi bete eta hustu.

Honekin batera, badator eguneroko ariketa fisikoa egitea, pasatu gabe, gorputz osoa ongi oxigenatu eta mantentzeko. Areago, Naturarekin kontaktuak laguntzen digu bai arnasarekin, bai ariketa fisikoa egitearekin, gehi beste onura askorekin. Ezinbestekoa da. Garrantzitsua da ere, garbi eta orekatu jatea, behar ditugun osagai asko behar bezala hartzeko. Inportantea da ere, gainera, beste gizakiekin harremanak sustatzea eta, ahal den neurrian kontaktu fisikoa izatea. Ahal denari, besarkada eman, urrun joan

gabe geurekin bizi direnei, esaterako. Bada kontuan hartzeko beste faktore oso garrantzitsu bat, emozioak. Hauen artean, negatiboak oso kaltegarriak izan daitezke geure sistema immunerako luzaro bizi baditugu, eta hauen artean, ikaragarri gaiztoa da beldurra. Beldurra era askotara sor daiteke geure baitan eta bide oso eraginkorra da informazio negatiboa behin eta berriz irenstea, azken hilabeteotan gertatzen ari den bezala. Beldurra gai da geure sistema immunea erabat txikitzeko. Eta jakina, estresak geure bizimodutik kanpo geratu behar du, nahita nahi ez.

Egoera zailak aukera diren neurrian, nola sortu zubiak bi talde hauen artean? Enpatia da biderik eraginkorrena, alegia, bestearen tokian jartzea. Ez ditut gauzak zuk bezala ikusten baina sentitzen dut zure beldurra edo egoera beste batera ikus daitekeela onartzen saiatuko naiz. Talde batekoek garrantzia ematen diote kanpoko defentsak erabiltzeari (pertsonen arteko kontaktua murriztea, musukoak eta gelak erabiltzea, botikak,...) eta beste koek, barruko defentsak indartzean jartzen dute indarra. Seguru nago, neurri batean zein bestean, bi taldekoek arrazoia dutela. Jarri gaitezen, beraz, bestearen tokian, enpatikoak izan gaitezen, eta bila ditzagun erdibideak guztiak egoera honetatik indartuta ateratzeko.



# Herrien biziraupena erdigunean jarritz

*Larraungo EH Bilduk ez zuen lan erraza eduki Udalean irekita zeuden lan ildoak eusten eta berriak sortzen eta koronabirusak behar berriak ere sortu ditu Ibarrean. Eurekin urte eta erdi honek eman duenaren balorazioa egin dugu. Gaur egun Mikel Huarte alkatea buru duen udal taldea osatzen dute Josu Orejak, Lorea Lasartek, Irune Juanenak eta Xabier Azpirozek. Eta lan-taldea indartzeko bidelagun dituzte Joseba Artzeluts eta Ainhoa Fernandez.*

Koronabirusak goitik behera aldatu zituen martxoan Larraungo Udalak aurrez zituen lehentasunak eta betebeharrak. Udal eraikinak itxi egin zituzten etxealdian. Mendukilo, Eguneko Zentroa eta Plazaola

kiroldegia itxita egon ziren zenbait hilabetez, baina bi udalen erabakiz bertako langileen soldata osatu egin zen. Ekainean, Covid-19 kasuen beharakadarekin eta neurrien maldazarekin batera, udal eraikinetako

ateak berriro irekitzea erabaki zuten. Mikel Huarte alkatea: "Eguneko Zentroa irekitzeko beldur handia izan genuen, baina erabiltzaileak gogoz zeuden, etxealdia gogorra izan zelako eta zerbitzu hori berriz martxan jartzeko beharra zuten. Neurri bereziekin ireki zen eta abuztuan pare bat kasu positibo izan ziren arren, berehala moztu zen. Eta Mendukilo ere udarako irekitzea erabaki genuen. Edukiera mugatu behar izan genuen eta diru ekarpen bat egin, baina behintzat uda salbartzeko aukera izan dugu, bisitari asko izan baititugu".

Osasun-etxean Larraungo Udalen ekimenez irailean karpa bat erosi eta jarri zen kanpoaldean PCR probak bertan egin ahal izateko. Hartara herritarrek Iruñera joan beharrik gabe eta osasun-etxera sartu beharrik gabe egiten dituzte orain proba horiek.

Bestalde, Larraungo zenbait sektore nabarmen kaltetzen ari zirela ikusita, horiei bultzada bat emateko asmoarekin eta herritarren harreman sozialak hein batean bada ere berreskuratzeko asmoz, bonuak banatu zituen bertako herritarren eta landetxeen artean ostalaritza suspertzeko.

Oraindik ikusteko dago, koronabirusak sortutako osasun krisiak gurean eragingo duen inpaktu sozio-ekonomikoa zenbatekoa izanen den. Baina jada zenbait kalte eragin ditu, horren adibide da esaterako Uitziko eta Astizko Aterpetxea. Mikel: "Uitzi eta Astizko herrietan ez ezik ibar osoarentzako galera handia izanen da aterpetxearen itxiera. Aterpetxeari esker beste hainbat enpresa eta jarduera ere elikatzen baitziren. Eta sozialki ere nabaritu dugu hutsunea, herrietan



Argazkian Ainhoa Fernandez, Josu Oreja, Lorea Lasarte, Mikel Huarte, Joseba Artzeluts, Xabier Azpiroz eta Irune Juanena.

*aterpetxeko haurrak ikusteak bizitza ematen baitzien herriei”.*

Udaberrian bertan behera gelditu zen ere “Ura eta lurra” proiektua. Lorea Lasarte: *“Maiatza Kulturalik ere ez genuen izan, baina udara begira lan polita egin genuen Lekunberriko Udalarekin, Euskara Zerbitzuarekin eta bertako eragile eta gazteekin batera. Kultur egitarau ederra osatu genuen eta oso balorazio positiboa jaso zuen egindako elkarlanak. Orain berriz pena izan da azarorako aurreikusitako ekitaldi gehienak berriro ere bertan behera utzi behar izan ditugula”.* Azaroan ordea, Mendialdeko Azoka Ibiltariarekin aurrera egitea erabaki zuten. Udalak zalantza asko izan zituen, jendea etorriko ez zenaren beldur, baina ekoizleek eurek animatuta eman zuten pausoa eta Baraibarren egin zen azokatik 500 lagun inguru pasa ziren.

Inbertsioei dagokienez. Legegingintzaldiarekin batera ekin zion Larraungo Udalak herritarren beharrak aztertu eta Gabari Etxeko ganbarari zein erabilera eman argitzeko prozesu parte-hartzaileari. Jarduera publiko ezberdinak antolatzeke, kontzejuek dituztenak baino espazio handiago baten beharra agerian utzi zuen prozesu hark. Ganbaran halako espazio bat egokitzeko aurreproiektuarekin PDR deialdian 50.000 euroko diru-laguntza jaso zuen eta ondoren beste 60.000 euro Nafarroako Gobernutik. Horiei esker eman da 200.000 euro inguruko inbertsioari aurre egiteko pausoa. Udalak gastuaren erdia soilik hartu beharko baitu bere gain.

Ehun lagunentzako espazio multifuntzional bat izanen da. Espazio ireki bat, segurtasun, efizientzia eta irisgarritasun neurriak kontuan



Gasbidearen aurkako helegitea aurkeztu dute Arakilgo eta Larraungo udalek.



Gabari Etxeko ganbara ehun lagunentzako egokituko da .

hartuz egokiturik egonen dena, igogailuarekin eta ezinduentzako komunarekin. Gainera hamasei lagunentzako espazio txikiago bat ere izanen da bertan. Mikel: *“Dagoeneko obren exekuziorako esleipena egin da. Lanak bi fasetan egingen dira. Egiturari dagozkion lanak apirilerako amaituta egotea aurreikusten dugu eta bigarren fasea berriz uztaileko amaituko da. Beraz, abuzturako erabilgarri izanen dugu eta ilusio handiarekin gaude. Eragileen eta herritarren eskura jarriko den espazioa izanen da. Baldintza batzuk betez edozein larraundarrek erabiltzeko aukera izanen duena”.* Horrek ez du esan nahi ordea, aurrerantzean bertan zentralizatuko direnik Larraunen antolatutako jarduera guztiak, kontzejuetako espazioetan jarduerak antolatzeke ahalegin berezia egiten jarraituko baitu Udalak.

Dena ordea ez da horren erraza izaten ari, bidean hainbat harrirekin ere egin dute topo. Horietako bat

da esaterako Gasbidearen proiektua, Irurtzun eta Lekunberri artean, Etxeberri, Madotz, Oderitz, Astitz eta Alliko parajeak zeharkatuz eraiki nahi dena Lekunberriko industriagunea gasez hornitzeko. Mikel: *“Gaur egun gasa kamioietan ekartzen da industriagunera eta Nasuvinsaren ekimenez gasbidea eraikitzeke proiektua abiatu zen 2017an. Guretzako Irurtzundik Lekunberrira gasa ekartzeko logikoena autobidea bera aprobetxatzea litzateke, eta inola ere ez, hainbat paraje natural zeharkatzen dituen ibilbidea. Madotzen izugarritzako arrastoa utziko luke ikuspegi paisajistikotik. Zehazki zortzi metroko zabalera duen arrastoa. Proiektuaren sustatzaileek diote bideragarria den aukera bakarra hori dela, baina adituekin hitz egin eta gero argi ikusi dugu oso gutxi landutako proiektu bat dela eurena eta ibilbide hori hartuz gero lanen exekuzioan ere arazoak sor daitezkeela ingurune naturalak berak dituen ezaugarriengatik,*



Gabari Etxeko futbol zelaia ere atõndu egin da.

oso karstikoa baita". Arakilgo eta Larraungo udalek helegitea aurkeztu dute epaitegietan Nafarroako Gobernuak euren interesak behar bezala bermatu ez dituela nabarmenduz, baina bien bitartean proiektuak au-

rrera jarraitzen du eta hasiak dira lurren desjabetzeekin.

Bestalde, Uitzitik eta Arakil aldetik datozen tentsio altuko bi linea elektriko lotu nahi ditu Ibedrolak gurean, batek huts eginez gero, Larraun eta Lekunberri argirik gabe ez gelditze-ko. Mikel: "Kalte handiena Uitzin sortuko luke, 500 metroko zati batean. Ez da zati handia, baina paraje hori bereziki sentsiblea delako gaude kezkatuta". Hala ere, konponbidea bilatzeko ahaleginetan ari da Udala eta Ibedrolak elkarrizketarako prestutasuna agertu du.

Kirolari dagokionez, Xabier Azpiroz zinegotziaren arabera, aire zabaleko kirolak sustatzeko lanketan dihardute. Xabier: "Orain arte kirol instalazioetan burutzen diren kirolak sustatzean jarri da ahalegina eta guk gurea dugun ingurune naturalaz baliatu nahi genuke beste hainbat kirol jarduera eskaintzeko. Elurra egiten

## **BEBER LO NORMAL PUEDE SER DEMASIADO**

## **OHI DENA EDATEA GEHIEGI IZAN DAITEKE**

**CELEBRAR LO NORMAL, TAMBIÉN  
HAGÁMOSLO DIFERENTE**

**OHI DENA OSPATZEA BAITA ERE  
EGIN DITZAGUN BESTELAKO OSPAKIZUNAK**

EN ESTA ÉPOCA DIFÍCIL  
CÁRRAI ZAIL HONETAN



**TE CUIDAS, NOS CUIDAS  
ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU GAITZAZU**



duenean eskia, eskalada, mendiko bizi-kikleta, piraguismoa...". Hala ere, uda honetan, inoiz baino gehiago erabili dute herritarrek Gabari Etxearen alboan dagoen futbol zelaia. Horretaz jabetuta, Udalak zenbait egokitzapen egin ditu eremua atontzeko, argiztapena jarri eta ura eramanez.

Larraungo Udalak ez du Udalaren beraren izana ulertzen kontzejurik gabe, eta horregatik Kontzejuen Mahaia sortu zuen iaz. Kontzejuekin euren beharrianak lantzeko foroa. Josu Oreja: "Urtean lau edo bost aldiz elkartzeko gara. Bertan hainbat lan-talde sortu dira, efizientzia energetikoa, araztegia edo ordenantzen ingurukoa adibidez. Hamabost kontzeju gara bakoitza bere errealitate, arazo eta interesekin, baina batzuk asko dute komunean eta oso aberasgarria izaten ari da elkarrekin lan egiteko. Kontzejuekin komunikazioa hobetu da eta eurekin zuzenean lan egiteko prest gaude".

### Aurrera begirako erronkak

Hainbat dira datozen hilabeteetarako dituzten lan ildoak. Garrantzitsuenetako bat banda zabala Larraunera ekartzeko egitasmoa da. Uitzin eta Oderitzen 600 MB-eko abiadura duen internet zerbitzuaz goza dezakete jada Telefonikak egindako inbertsioari esker. Udala hasia da Nafarroako Gobernuarekin lanean gainerako herrietan gobernuak berak ezarritako gutxieneko 30 MB horiek Larraungo etxe guztietan eskaintzeko. Lorea: "Etxealdiak inoiz baino ageriago utzi du arrakala digitalaren arazoa. Gaur egun, ezinbestekoa dugu internet zerbitzua eskaintzea gure herritarrei, dagokien eskubidea da".

Larraungo herrietako bizi kalitatea hobetze aldera landuko den beste alorra mugikortasunarena izanen da. Udal Plan berria erredaktatzeari ere ekingo dio Larraungo Udalak datozen hilabeteetan.

**Beste 30.000 euro bideratu dira herrietan egindako inbertsioetara. Erdia zenbait kontzejuk bideratutako efizientzia energetikoa hobetzeko proiektuetarako eta beste erdia Baraibarren sortu den boulderrerako. Hurrengo urteko aurrekontuetan ee elkarlanean ondorioz sortutako proiektuetara bideratzeko dirua izangoda.**

## EL CONSUMO DE ALCOHOL PROVOCA QUE NOS RELAJEMOS EN LA PREVENCIÓN FRENTE A LA COVID-19

### ALCOHOLA KONTSUMITZEAN COVID-19AREN PREBENTZIOAN LASAITZEN GARA



EL ALCOHOL PUEDE HACERNOS REDUCIR LAS PRECAUCIONES

200 ml: FALSA APRECIACIÓN DE LA DISTANCIA DE SEGURIDAD

400 ml: REDUCCIÓN DE LA SENSACIÓN DE RIESGO

600 ml: ALTERACIÓN DE LO QUE SE HACE Y SE SIENTE



DEBILITA EL SISTEMA INMUNE. EL ALCOHOL NO PROTEGE FRENTE A LA COVID-19



PUEDE AGUAR LAS RELACIONES Y DESCONTROLAR LAS EMOCIONES



CUANDO EL CONSUMO SE PRODUCE EN FAMILIA, AFECTA AL DESARROLLO DE MENORES



ALCOHOLAK NEURRI GUTXIAGO HARTZEA ERAGIN DAKIGUKE

200 ml: SEGURTASUN-DISTANTZIA GAIZKI NEURTZEA

400 ml: ARRISKU-SENSAZIOA MURRIZTEA

600 ml: EGITEN DENA ETA SENTITZEN DENA ALTERATZEA



IMMUNITATE-SISTEMA AHULTZEN DU. ALCOHOLAK EZ DU COVID-19AREN AURREAN BABESTEN



HARREMANAK HONDATU ETA EMOZIOEN KONTROLA GALTZEA ERAGIN DEZAKE



FAMILIAN KONTSUMITZEN DENEAN ADINGABEEN GARAPENARI ERAGITEN DIO



[www.beberlonormal.navarra.es](http://www.beberlonormal.navarra.es)  
[www.ohidenaedatea.nafarroa.eus](http://www.ohidenaedatea.nafarroa.eus)

Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



## BARAIBAR



## Arrakasta handia izan du Mendialdeko Azokak Baraibarren

Cederna Garalur eta eskualdeko hainbat udalekin elkarlanean lehen sektorea bultzatzeko egiten ari den ahaleginetik sortu da Mendialdeko Azoka ibiltaria. Latasan eta Jauntsaratsen egin ziren lehen azokak eta joan den hilean gurera iritsi zen. Baraibarren eskualdeko hainbat eta hainbat ekoizlek euren postuak jarri zituzten. Eguraldiak lagundu zuen eta izugarriko arrakasta izan zuen.

Zenbait ekoizlek eramandako produktu guztiak saldu zituzten. Larraundarrak ez ezik, eskualdeko nahiz kanpo bisitariak hurbildu ziren azokara. Antolatzaileen arabera, guztira 600 pertsona pasa ziren bertatik goiz osoan zehar. Hala ere, Covid-19aren aurkako babes neurriak bete ziren eta uneoro sarrera eta irteeran jende kopurua kontrolatu zen.

Barazkiak, gazta, artisau ogia, ezitia, Iribasko babarrunak, zilarrezko bitxiak... Denetariko produktuak jarri ziren salgai. Azoka ibiltariak bere bidearekin jarraituko du eta hurrengo geldialdia Lekunberrin egingen du abenduaren 13an.



## BETELU

## Hasi da Araitz-Beteluko Kulturaldia!

Joan den azaroaren 28an eman zioten hasiera aurtengo Araitz-Beteluko Kulturaldiari Eneko Dorronsoro eta Fredi Pelaezen kontzertuarekin. Abenduaren 3an berriz, Euskararen Egunaren bueltan Potxin eta Patxin Pailazoen ikuskizuna izan zen Beteluko frontoian. Eta datozen egunetarako ere hainbat ekitaldi daude aurreikusita. Asisko Urmenetak marrazkiak eginez aurkeztuko du Arribeko elizan sorginei buruz argitaratu berri duen komikia. Gizarte Zerbitzuekin eta Euskara Zerbitzuekin batera, gaztetxoentzako serigrafia tailerra ere eskainiko da Atallun eta abenduaren 11n, Azkaraten, Idoia Larrañaga nutrizionista izanen dugu besteak beste bizitzen ari garen garai hauetan horren beharrezko dugun immunitate sistema indartzeko gomendioekin. Elikadura energetikoan, medikuntza biologikoan, homeopatian, naturopatian eta masaje emozionalean aditua da Idoia. Kulturaldiko egitarau osoa Agendan duzu ikusgai! (31. orr.).

**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antzonia.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34



Altzari bakoitzaren atzean mila istorio daude. Ez utzi botata.

# Eman ezaiozu amaiera polit bat



UTZI EZAZU GARBIGUNE BATEAN EDO DOAKO ZERBITZU BAT ERABIL EZAZU

Alto Araxes 948 981 822

Mendialdea 948 510 444



Gobierno  
de Navarra  Nafarroako  
Gobernua

 residuos de navarra  
nafarroako hondakinak

 MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES  
ARAXES GARANO MANKOMUNITATEA

 Mendialdea  
ankomunitatea



## Halai

*Bizitze etengabeko aldaketa dela esaten due, eta aldaketa hoikin denakin ez'ta errexu beti eoten alai, baño halai badee pertsonak kolpe bakoitzeko altsa, idartuta altsa ta jarrera positiboa eakusten duenak. Hointzako denantzako muxuena. Izanee, enuke esango nere bizitzako eunik alaiena denik, baino halai muxuz betea dauket gaur biotzeko pertza eta partitzea erabaki'ot; hustutzen ez bada, ez baita lekuik geatzen berrietzuk sortzeko.*

*Elkartasun muxu haundiet basamortun erdi-erdieño, eo mapan ertz bateaño. Kosta ala kosta mapatik kenduazi nahi ta halai hamarkadaz-hamarkada irrintzike biziraun don herri hartaaño. Zerotik berrogei graduta; zerutik inpernura arteko birea been haimatatik muittu eziñik itten ai deen saharar haitaaño.*

*Herrimiñez betetako muxu haundiet Sevillako kartzelako ertz hartaaño. Eunerokoan zurrunbiloa aitzaki, beñe baño apartego eta isolatugo dauukun ziega hartaaño. Harren aurpeikera re beti alai. Besotan nahi baño gutxigotan bere seme Alai, eta halai maitasune letra, kantu, eskulan eta eskumin hegalarri bakoitzean. Bejondeikela!!*

*Harrotasunez eta miresmenez betetako muxu goxoat goiz-iluntzetan esnez betetako pertza betiko hustutzea erabaki don emakume ausart eta indartsu horri. Mileka letra polittez osatuta eote a Mailope, baño halai, beti aurrena zati hau aukeratzeon horri. Garaie etorritakoan duintasunez aldaketa onartu, barrena erdibittuta euki, eta halai atzetik heldu deenai babesu eta indarra ematen dien etxeoandre baserritar horri.*

*Izana eta izena, Amets! Muxu maitakor bat zootzako re. Gure begikin beittuta, bizitzak trabak besteik ez dizkizo jarri. Zore begik birea itteko erronkak besteik ez ditto ikusten, ordea. Beti pozik, beti alai, eta errukiz beitzen dizue halai askok! Aldatuko al duu behingoz beitture, gauze batzuk ez baitee izaten gai eo ez-gai, gauze batzuk izaten dee bai eo bai. Eunerokoak baditto mileka punte eta ertz, eta nei oaingoan hustu zait muxun pertza! Baño izangoa geo're zeeze, ez pentsa! Saari hemen dittuu Eguarrik ta hemen duu Olentzero, ta beñe baño muxu hegalarri gehiokin heldu omen da gañea aurten; halai-halai!!*

## Elkartasun saskia zozketatuko du aurten Larraungo Pilota Elkartek

Larraungo Pilota Elkartek Lekunberriko Pilarika jaietan urtero zozketatu ohi duen bertako saltoki eta ekoizleen produktuekin osatutako saskia. Aurten ordea, ez genuen izan ez pilota jaialdirik eta ezta inolako ospakizunik eta ondorioz hasiera batean aurten zozketarik ez egitea erabaki bazuten ere Eguberrietan zozketa eginen da eta inoiz baino saski ederragoa osatu dute gainera.

Horrenbeste urtetan Larraungo Pilota Elkarteari saskia osatzen lagundu dieten ekoizle eta dendariei eskertzeko saskia osatu dute. Eskean ibili beharrean Larraungo Pilota Elkartek 1.500 eurotik gora erabili ditu Larraungo ostalari, merkatari, ekoizle eta zerbitzuei produktuak eta opari-txartelak erosteko.

Lourdes Noguera (Larraungo Pilota Elkarteko idazkaria): "Oraingoan, guk eurei laguntzeko unea dela uste dugu. Larraungo taberna guztietan erosi ditugu otorduak egiteko opari-txartelak eta saskian badira besteak beste ile-apaindegi edo masaje zerbitzuetan erabiltzeko opari-txartelak, eta mota guztietako elikagaiak. Ostalariei batez ere, kinka larrian dauden honetan, opari-txartelen bitartez lagundu nahi izan diegu, berriro euren atea irekitzen dituztenean jarduera aktibatzen laguntzeko". Inoiz ikusi den saskirik handiena osatu dute. Saski bakarra, dagoeneko beti bezala Artxueta Harategian ikusgai dagoena.

Zozketan parte hartzeko txartelak Artxueta harategian bertan daude salgai eta Pilota Eskolako pilotariak ere saltzen dabilta. Zozketa abenduaren 24an izanen da. Saskiaren irabazleak datozen hilabeteetan ederki gozatzeko produktu eta opari-txartelak izanen ditu. Beraz, oraindik ez badituzu zure txartelak erosi, mugil!



## Eskalatzeko boulder berria Beigorri parkean

Eskalatzeko boulder berria jarri du Lekunberriko Udalak Beigorri parkean. Badirudi eskalatzeko modan jartzen ari dela gurean. Arrakasta handia izan zuen Printzak antolatutako kale eskalada jardunaldiak eta Larraunen ere eskalatzaille taldea sortzen ari da. Orain berriz, Lekunberriko Udalak haur zein gazteek eskalatzeko boulderra jarri du. Eskalatzeko aukera izanen duzu hemendik aurrera Lekunberriko hariztian!



### Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

### aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890

948 513 083  
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

### CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31  
Lekunberri

### German Lasarte

ARBEONDO

HARATEGIA

Aralar kalea 9

Lekunberri

948504157

# Jubiloteka, inoiz baino beharrezkoago

## Urriaren 6an abiarazi zenuten Jubiloteka...

**Mikel:** Osasun krisiak eraginda jende asko etxean sartuta egon da, adinekoak bereziki, eta ohartu gara etxealdiak negatiboki eragin diela. Horregatik, babes neurri bereziekin bada ere martxan jartzea erabaki genuen.

## Baina zer da Jubiloteka?

**Mikel:** Lekunberri naiz Larraungo 65 urtetik gorako herritarrentzako gune bat da, dependentzia saihestea eta zahartzaro aktiboa lortzea helburu duena. Zortzi erabiltzaile ditugu momentu hauetan. Koronabirusa dela eta momentuz ezinezkoa da erabiltzaile gehiago batzea. Neurri zorrotzak hartu ditugu Jubiloteka aurrera eramateko eta jarduera segurua izan dadin. Une oro distantziak mantentzen dira, ahozapiak jantzita, ez dituzte materialak partekatzen, sartu aurretik tenperatura hartzen zaie... Arriskua ekiditeko protokoloa ezarri dugu hasieratik.

## Astean bitan egiten dituzue saioak, ezta?

**Arantxa:** Bai, astearte eta ostiraletan (11:00-13:00). Adineko pertsonen zuzendutako saioak dira. Lehenengo ordu erdian tertuliak egiten ditugu, gaur egungo gaien inguruan aritzen

gara hitz egiten, baita kezkatzen gaituzten gauza horiei buruz ere. Gero ariketa fisikoa egiten dugu gorputza aktibatzeko. Ariketa sinpleak izan ohi dira malgutasuna, indarra, nahiz oreka lantzeko. Eta ondoren, astearletan esaterako, eskulanak egiten ditugu, papiroflexia, margolanak, Eguberrietarako apaingarriak... Eta ostiraletan berriz idatzizko nahiz ahozko ariketak egiten ditugu funtzio kognitiboak

*“Hemen egiten ditugun gauza asko gero baliagarri zaizkie euren egunerokoan”*

lantzeko, arreta, memoria, lengoaia... Jokuen bitartez ere landu ohi ditugu halakoak. Egungo egoera kontuan hartuta ezinezkoa zaigu mahai-jokoetan aritzea, baina zenbait joko arbelaren bitartez egiten saiatzen gara. Talde polita osatu da eta giro ederra sortzen da gure artean.

## Izen-ematea jada itxita al dago?

**Mikel:** Martxoan gehienez hamalau pertsonako taldea osatzea zen asmoa, baina orain ezinezkoa zaigu zortzi baino gehiago elkartzeari Lekunberriko udaletxe azpiko areto honen azalergatik. Badira etorri

nahi dutenak eta itxaron zerrendan daudenak eta deialdia luzatzen diegu herritarrei, interesa izanez gero eman dezatela izena 660220078 telefono zenbakian edo Lekunberriko udaletxean eta aukera izan bezain laster eurak ere batuko lirateke taldera. Erabiltzaileek bost euro ordaintzen dituzte hilean eta horrek aukera ematen die urte osoko konpromisoa hartu ezin edo nahi ez duten horiek ere parte hartu ahal izateko. Beraz, animatu eta proba dezatela!

## Garrantzitsua da etxetik ateratzea eta tarteka ohiko errutinetatik ir-tetea, ezta?

**Mikel:** Ezinbestekoa. Gainera, badira menpeko pertsonen zaintza bere gain duten adineko pertsonak eta horientzat berebiziko garrantzia du euren buruari ere denbora eskaintzea.

**Arantxa:** Gainera ohartu naiz hemen egiten ditugun gauza asko gero baliagarri zaizkiela euren egunerokoan. Egiten ditugun meditazioak edo arnasketa ariketak esaterako asko euren etxean egiten dituzte eta gero eta on egiten die. Edo aurreko batean egin genituen eskulan batzuk ondoren, asteburuan, erabiltzaileetako batek euren bilobekin errepikatu zituela esan zidan.



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7 - baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota** **STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)

**ANTONIO CARRARO**

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)



**Bizitzen ari garen egoeran adineko jendea elkartze begi onez ikusten ez duenik izanen da...**

**Mikel:** Udal legegintzaldiaren hasieran proposatutako ekimenetako bat izan zen hau. Ikusten genuen Nafarroako herri asko eta askotan egiten zen gauza bat zela, arrakasta handia izaten zuela eta gurean ere interesgarria litzatekeela halako zerbait eskaintzea. Gure ustez krisi egoera honetan inoiz baino beharrezkoagoa dela zerbitzu hau. Birusaz gainera, jende asko bakardadearengatik eta etxealdiarengatik ari da osasuna galtzen eta ahalik eta modu seguruenean hori

ekidin behar dugu. Kasu honetan, eguneko zentroetan aplikatzen ari den protokoloa hartu dugu oinarri gisa.

**Arantxa, bizitzen ari garen egoerari buruz zer diote erabiltzaileek?**

**Arantxa:** Kontatzen dute, hasieran edozer gauzek beldurra ematen ziela, baina denok bezala, uste zuten berehala bueltatuko ginela normaltasunera. Egoera luzerako doala ohartu dira eta era berean euren buruak babestuz baina bizitzen jarraitu behar dutela eta posible dela. Batzuek diote asko eskertu dutela Jubilotekan hasi izana, behar zutela.

*Martxoan zen martxan jartzeko Lekunberrin Jubilotekaren proiektua, baina Covid19-ak, beste hamaika ekimenekin gertatu dena moduan, atzeratzera behartu zuen. Orain ordea, adineko jendeak inoiz baino behar gehiago duela uste du Lekunberriko Udalak eta horregatik, ekimena egoerak eskatzen dituen babes neurrien arabera egokitu eta gero, zortzi pertsonekin abiatu da Jubiloteka. Proiektuko arduraduna den Mikel Irujorekin (Lekunberriko Udaleko Ongizate eta Gizarte zerbitzuetako boluntario arduraduna) eta Jubilotekako gidaria den Arantxa Saigos psikologoarekin izan gara.*



**Lagunasesoría S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**SOTIL GARAJEA**

BETELU

948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)

**OKM**

**ABOKATUAK**

Eukeni Celaya Zubietta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555



## POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteryen bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) / 638 652 339.

**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
[www.antsonea.com](http://www.antsonea.com)  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER  
634 551 743  
[infoaralar@gmail.com](mailto:infoaralar@gmail.com)

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15**  
948 60 47 24

**TAXI  
SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**urrutia**  
enea  
etxeko hestekiak  
**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia  
**ARRIBE**  
ADIII TLF BERRIA:  
948 51 30 32

**Iñigo Garaioa**  
**MARGOLARIA**  
696 658 288  
**LEKUNBERRI**

**ce consulting**  
empresarial  
ANA RAMOS MARTÍN  
**GESTORIA**  
666 939 332  
[aramos@ceconsulting.es](mailto:aramos@ceconsulting.es)

panaderia okindegia  
**GALBURUeco**  
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa  
Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

## ▶ AGENDA



## ▶ MERKATU TXIKIA

### LAN BILA

▶ Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

### OPARI

▶ Katakumeak oparitzen dira. Harremanetarako: 616 956 899.

### EROSTEKO

▶ Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

## ABENDUA

7 - Kulturaldia: Gaztetxoentzako Serigrafia tailerra 16:00etan, Atalluko frontoian.

10 - "Mikromatxismoak: Indarkeria matxistaren oinarria" hitzaldia, 17:00etan, Zoom bidez. Eman izena: 605 466 805.

10 - PRINTZA: Kartelgintza III. tailerra. Illustrator irudien ediziorako programa ikastaroa, 18:00etan.

11 - Kulturaldia: Idoia Larrañagarena nutrizionistaren hitzaldia, 19:00etan, Azkarateko elizan.

13 - Bertso jaialdia Plazaola kiroldegian, 18:00etan. Bertsotan ariko dira Julio Soto, Maialen Lujanbio, Xabat Illarregi eta Oihana Iguaran.

13 - Mendialdeko Azoka Ibiltaria Lekunberrin.

17 - PRINTZA: Muxutruk: ekarri edota hartu nahi duzuna: arropa, jostailuak... 16:00etatik 19:30era.

18 - "Internet denontzat" hitzaldia, 18:00etan, Larraungo udaletxean.

19-20 - Artisau Azoka Lekunberrin.

20 - PRINTZA: Bideotertulia: "Gure gizartearen kolapsoa" Martintxo Zelaiarekin (Nekazal ingeniaria), 17:00etan.

26 - PRINTZA: Kontzertu akustikoa: Petti. 18:30ean.

29 - PRINTZA: Danza integral: Miren Saralegi. Un espacio de respeto, escucha y crecimiento. 17:00etan.

## ILBELTZA

6 - PRINTZA: Ipuin kontaketa musikatua. "Isiltzen joan zirenak". Bereziki helduei zuzendua. 17:30ean.

**TAXILON**

Lontxo Otamendi Artola

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

# Etxe bat ... bazkide bat

## MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK:

MAILOPE@LABRIT.NET

638 652 339

[HTTPS://MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA/](https://mailope.eus/bazkidetza/)

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE ETA ZUZENEAN BI HILABETERO EGINEN DIREN ZOZKETETAN PARTE HARTUKO DUZU!

Aitor Goikoetxea izan da lehen zozketako bazkide sariduna.

"Aralar. Mundua leku den lurra" liburua eta DVDA jaso ditu. Zorionak!



# top topa .shop

abenduaren 9tik aurrera

Nafarroako tokiko merkatariorik plataforma berri hau eraiki dugu, gure produkturik hoberenak zure etxetik bertatik disfrutatu ahal izateko.

**Sartu Toptopan eta topatu Nafarroako top produktuak eta top dendak.**